



FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure kasuan, arazo nagusia da ikasle askok ez dutela nahikoa ur edaten egunean zehar, nahiz eta, ura oso garrantzitsua izan osasunerako. Horregatik sortu da ideia hau: kolorea aldatzen duen tapoia duen ur-botila bat egitea, pertsonari bere hidratazio-egoera modu erraz eta bisualean erakusteko. Horrela, produktuak ikasleei ur gehiago edaten laguntzen die, ohitura osasungarriak sortuz.

Jarduera zehatzak hauek izango lirateke→

Publizitatea: Gure botilaren publizitatea ikasleei zuzenduko diegu, sare sozialetan (Instagram, TikTok) bideo laburrak erabiliz eta ikastetxeetan kartelak jarriz. Helburua da ura edateko ohitura onak sustatzea eta botila erakargarria erakustea.

Hornitzaileekin kontaktuan: Teknologia-osagaiak eskuratzeko eta proiektuaren funtzionamendua bermatzeko, hornitzaileekin harremanetan egongo gara, behar dugun materiala eta laguntza jasotzeko.

Hitzaldiak: Ikastetxeetan eta kirol zentroetan hitzaldi laburrak egingo ditugu, ura edatearen garrantzia eta tapoiaren kolore-sistema erakusteko. Helburua da ikasleak eta kirolari gazteak kontzientziazatzea eta botila erabiltzea sustatzea.